



Lanpostuaren deialdia: Proiektuen Kudeaketarako eta Aholkularitza Zerbitzuen arlorako teknikaria

Hegoa, Nazioarteko Garapenari eta Lankidetzari buruzko Ikasketa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatearen Institutu Mistoa da. Gizartearen aldaketan eragitea du helburu, pentsamendu kritikoa oinarri hartuta, giza garapenerako eta lankidetzaren eraldatzaileerako esparru teorikoak, prozesuak eta estrategia alternatiboak eraikiz, proposatuz eta aplikatuz, bizitzaren iraunkortasunerantz igarotzeko.

Hegoako Proiektuen Kudeaketa eta Aholkularitza-zerbitzuen Arloak laguntza teknikoak, prestakuntza, zerbitzuak eta azterlanak eskaintzen dizkie administrazio publikoei eta lankidetzako beste erakunde batzuei lankidetzaren deszentralizatuaren politika publikoen esparruan. Halaber, Arloak proiektuak diseinatu, formulatu eta gauzatu dituzte Hegoako ikerketa-taldeekin, tokiko bazkideekin eta erakunde aliatuekin batera. Arloko taldean sartzeko pertsona baten bila gabilta.

Lanpostua: PROIEKTUETAKO ETA AHOLKULARITZA-ZERBITZUETAKO TEKNIKARIA

Lanpostuaren helburua: Hegoak erakundeei eskaintzen dizkien aholkularitza zerbitzuetan lagundu bai eta Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariaren kudeaketan ere.

Funtzioak:

- Administrazio publikoen eta erakunde pribatuen lankidetzaren proiektuen deialdietako aurretiazko eta ondorengo ebaluaketak eta jarraipen teknikoak, ekonomikoak, finantzarioak eta kudeaketakoak egitea.
- Nazioarteko garapenari eta lankidetzari buruzko txostenak, azterlanak eta ohar teknikoak egitea bereziki lankidetzaren deszentralizatuari buruzkoak.
- Proiektuen zikloaren kudeaketa: garapenerako lankidetzako eta/edo gizarte-eraldaketarako hezkuntza-proiektuak identifikatzea, formulatzea, gauzatzea, justifikatzea eta ebaluatzea.
- Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atarian hobekuntza teknikoak eguneratzea, mantentzea eta sartzea.
- Tailerrak dinamizatzea eta ikastaroak ematea.

Eskatutako profila:

- Goi-mailako unibertsitate-prestakuntza akademikoa.
- Masterra Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenaren arloan edota antzeko diziplina batean (feminismoa, giza eskubideak, etab.).
- Gutxienez 3 urteko esperientzia frogagarria gizarte-eraldaketarako hezkuntza edota lankidetzaren proiektuen zikloaren kudeaketan (EpTS). Marko logikoaren ikuspegia menderatzea.
- Euskal lankidetzaren politikak ezagutzea.
- Ikerketa sozialeko tekniken ezagutza.
- Esperientzia proiektuetan genero-ikuspegiaren txertatzean.
- Idatzizko eta ahozko komunikazio bikaina.
- Ezinbestekoa: euskara menderatzea (CI maila edo goragokoa ofizialki egiaztatuta).
- Ingelesean ondo komunikatzeko gaitasuna (CI maila edo goragokoa ofizialki egiaztatuta).
- Office paketearen ezagutza ona (Word, PowerPoint...) eta bereziki Excel domeinua.
- Hainbat eragilerekin komunikatzeko eta hitz egiteko gaitasuna.
- Talde-lanerako gaitasuna.
- Azterketarako eta sintesirako gaitasuna.
- Planifikatzeko eta antolatze gaitasuna.



Baloratuko da:

- Feminismoei eta garapenean genero ikuspegiari buruzko prestakuntza espezifikoa.
- Aldaketaren teoriako prestakuntza espezifikoa.
- Ebaluazioko prestakuntza espezifikoa.
- Aurretiazko esperientzia ikerketa- eta/edo aholkularitza-txostenak egiten.
- Garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren arloko argitalpenak.
- Datu-baseak diseinatzen, eraikitzen eta maneiatzen esperientzia izatea.
- Hegoarekin aurretik lan egin izana.

Lanpostuaren baldintzak:

Kontratu mugagabea, sei hilabeteko probaldia duena.

Lanaldi osoa

Lantokia: Hegoaren Bilboko egoitza

Ordainsaria: Hegoako soldata-taulen arabera

Hasteko data: 2023ko otsaila-martxoa.

Hautaketa-prozedura:

Interesaturik dauden pertsonen euren kurrikuluma jarraian agertzen den helbidera bidali beharko dute: personal@hegoa.info. Mezuaren gaia: "Proiektuen eta Aholkularitza-zerbitzuen teknikaria".

Kurrikuluma bidaltzeko azken eguna: **2023ko urtarrilaren 23a**

Idatzizko proba egingo da.